# Zurekin ORDIZIA gara

ehbildu



## ADUR EZENARRO AGIRRE

Lezoko udal arkitektoa eta Ordiziako zinegotzia.



**Juan Karlos Izagirre**

Foru hauteskundeetako zerrendaburua

«Gure herriaren etorkizuna gaur bertan hasiko gara eraikitzen»



# Zurekin ORDIZIA gara

## «Ordiziak bere burua berrasmatu beharra dauka, seriotasunez, baina irudimena eta ideia berriekin»

Ia urtebeteko lanketaren emaitzak erakustea pozgarria bada, are eta gehiago Ordiziako aniztasuna islatzen duen halako taldekide bikainak lagun dituzunean. Eskarmentu handiko pertsonak, adituak eta arituak, eta halako proiektu bati biltzen zaizkionean, batu baino, biderkatzea lortzen dutenak. Esan nuen zerrendaburu bezala aurkeztu nintzaizuenean, ez nengoela bakarrik. Hau guztia ez delako pertsona bakar baten kontua. Pertsona bakar bat, ur tanta isolatu bat bezalakoa baita, baina tantaz tanta, elkarrekin, eta jarioari eutsita, arrokarik sendoena ere zulatu dezakete. Gu, dagoeneko, tantaz tanta jende anitza eta ezberdina biltzen duen itsaso zabala gara.

**ZUREKIN ORDIZIA GARA**

Zurekin osatu dugulako hau guztia. Tantaz tanta gehitu zatzaizkiotelako gure emariari iradokizun bat egin diguzuen bakoitzean. Auzoz-auzo bertako arazoak agerian jarri dizkiguzuen bizilagunak. Sarritan egoera prekarioan lanean diharduzuen herriko taldeetan zabiltzatenak. Kalean ezinegonak eta kezkak partekatzera hurbildu zatzaizkigutenak, inkesta erantzun duzuenak, baina baita kalean irribarre batekin hartu gaituzuenak ere.

Ordizia Barrutik Hazi prozesuan, zuen laguntzari esker etorkizuneko haziak prestatu ditugu, lau urtetarako proposamenak bai, baina epe luzera gidatu behar gaituzten helburuak eta estrategiak argi izanda. Hazia erein eta ernaraztea da garrantzitsuena, atzetik etorriko direnek ere, landarea ureztatu, eta lore eta fruituez goza dezaten.

Horregatik bost ildo nagusitan bildu ditugu gure programako proposamenak:

**1.- ZUREKIN ORDIZIA ZAINTZAILEA ETA DUINA GARA**

Pertsonen ongizate eta duintasunaren atzean beti dago zaintza lana, eta herri hau osatzen dugun komunitate osoaren ardura da zaintza lanei aurre egin eta partekatzea, batez ere, emakumeen bizkarrera bota ditugun ardurei guztion artean aurre egitea. Ezinbestekoa da zaintza jasotzen duten haur eta helduen iritzia entzun, eta gure erabakietan txertatzea. Baina pertsonen zaintza oso poliedrikoa da, eta esparru askotatik eragin behar zaio, atzean inor ez uzteko gizarte zerbitzuetatik, noski, baina batez ere ordiziarrak bizi diren eremuetatik, auzoetatik. Ordizia bera, gure herria, zaintzaile bilakatu behar dugu, zentzu horretan oso atzera geratu baikara irisgarritasunean.

**2.- ZUREKIN ORDIZIA HEZITZAILEA ETA OSASUNTSUA GARA**

Hiri Hezitzailearen kontzeptua udalaren jardun osoa lotu behar duen ezinbesteko zehar-lerroa izan behar da, egiten dugun guztia da hezitzailea. Horregatik, ezin da marka batean bilakatu, edo ekitaldi ezberdinen zerrenda hutsal batean. Gainera, heziketa ez da hezkuntza soilik, kultura eta kirola ere hezitzaileak dira, eta ezin ditugu modu banaduan kudeatu.

Hezkuntza mailan, Ordizian komunitate bakarra garela argi izan behar dugu, eta herri bezala aurre egin behar diegula herri bezala ditugun arazoei. Ordiziar guztiak barnebilduko dituen komunitatea indartzea izan behar da helburua, eta gure artean arrakalak baino, zubiak eraikitzea.

Kulturan erronka izugarria daukagu, baina kirolarekin egin dugun bezala, Ordizian kultura sustatzeko bidea irudikatu eta finkatuko dugu herriko eragileekin.

**3.- ZUREKIN ORDIZIA BERRITZAILE ETA JASANGARRIA GARA**

Aldaketa klimatikoa gainean daukagun honetan, berrikuntzak ez dira berrikuntza, ingurumenarekiko jasangarriak ez baldin badira. Baina gakoa berritzaile izatean dago, eta aitzindari izatean, eta hori Ordiziaren ikurra da. Nekazaritzarako lurrik ez, eta azoka eta merkataritza sortzea, azoka babesteko plaza estaltzea, ur-hornidurarako ura argi indarra sortzeko erabiltzea... Gure arbasoek argi erakusten digute bidea, ideia berriak eta irudimena funtsezkoak dira aurrera egiteko!

Berritzaileak eta jasangarriak izan behar dugu, eta energia berriztagarrien aldeko benetako apustua egin, baina baita azoka eta merkataritza biziberritzeko ideia berriak, irudimena eta teknologia gure alde baliatu ere. Goierriko lanbide eskolaren inguruan sortu den ezagutza eta teknologia poloa Ordiziaren ikur bezala aldarrikatu behar dugu, eta ideia berriekin sortzen diren enpresak Ordizian geratzeko aukerak sortu.

Mugikortasunarekin ere berritzaileak, jasangarriak eta serioak izan behar dugu, eta arazoari bere osotasunean aurre egin. Adituen azterlanetan oinarrituta, eta alde guztietan eragingo duten aldaketa anitzekin, ekimen bakar batek ez baitu arazoa konponduko.

**4.- ZUREKIN ORDIZIA EUSKALDUNA ETA ANITZA GARA**

Udaletik bertatik hasi behar da euskararen erabilera sustatzen, gaur egun, euskara jatorri ezberdinetatik datozen haurren komunikaziorako hizkuntza eta integrazio tresnarik eraginkorrena baita, eta hori eskoletan ikusten da egunero.

Aniztasunari dagokionez, beti atxikitzen zaion ikuspegi ezkorrarekin apurtu nahi dugu, aurreiritziak zurrumurruetan oinarritzen direlako, eta ez benetako datuetan. Aniztasunak aberatsago bilakatzen gaitu. Horregatik, hausnartu beharko genuke zergatik baloratzen dugun hainbeste ikastera kanpora joatea, Erasmus izatea, edo munduan zehar bidaiatzea, eta gero, guri bizitza oso bat biltzea kosta zaigun esperientzia hori, gure seme-alabek etxetik mugitu gabe bizitzeko aukera modu positiboan baloratzeko gai ez izatea.

Aniztasunak euskarara garamatza, geroz eta kultura gehiago ezagutu, orduan eta gehiago maitatzen dugulako geurea. Baina ez gehiago garelako, ezta gutxiago ere, aniztasun unibertsal hori aberasteko geure alea jartzeko aukera ematen digulako baizik.

Horregatik, gurera datorrenei ongi etorria ematen dien harrera herri euskalduna izan nahi dugu.

**5.- ZUREKIN ORDIZIA FEMINISTA ETA JUSTUA GARA**

Feminismoa justizia kontua da, injustua den gizarte hau aldatzea delako helburua. Ezinbestekoa da indarkeria matxista jasan duten emakumeei arreta osoa eskaintzea, eta ahalduntzean eta minaren erreparazioan laguntzeko bitartekoak eskaintzea, eta ez dago bitartekorik baliabide ekonomikorik gabe.

Herritarren benetako parte-hartzea eta gobernantza eredua aldatzea ere ezinbestekoa da, boterea ere, partekatu beharra dagoelako.

Bizikidetza eta memoriaren inguruan, ezinbestekoa da preso dauden pertsonek pairatzen duten egoera salatu eta konponbideak bilatzea, alderdi guztien kontsentsua bilatzea, eta zalapartarik gabe, guztien mina aitortzeko urratsak ematea.

ADUR EZENARRO AGIRRE



# ADUR EZENARRO AGIRRE

**Ordizia 1977. Udal arkitektoa**

Nire lanaren helburua beti izan da pertsonen bizi kalitatea hobetzea, eta hobekuntza horiek burutzeko eragile ezberdinekin harremanak ahalbideratu, koordinatu eta gidatzea, aurrekontua gainditu gabe eta adostasunak bilatuz.

El objetivo de mi trabajo siempre ha sido mejorar la vida de la gente, y para ejecutar esas mejoras coordinar y dirigir a todos los agentes implicados, sin superar el presupuesto y llegando a acuerdos.

«Ordizia necesita reinventarse a sí misma, desde el rigor, pero con imaginación y nuevas ideas»



Si de por sí presentar los resultados de un trabajo de casi un año es gratificante, lo es aún más si cabe, cuando unas personas tan magníficas que representan la diversidad de un pueblo como Ordizia te acompañan. Personas de gran experiencia, expertas y activas, que cuando se unen a un proyecto así, más que sumar multiplican. Ya lo dije cuando me presenté públicamente, que no estaba solo. Porque todo esto no es cuestión de una sola persona. Una persona es como una gota de agua aislada, pero gota a gota, juntas, y si persisten en su empeño, pueden horadar la roca más dura. Gota a gota, ya somos un mar que acoge y aglutina a personas diversas y plurales.

**CONTIGO SOMOS ORDIZIA**

Porque hemos construido todo esto contigo, gota a gota, porque cada vez que nos habéis hecho una sugerencia os habéis ido uniendo a nuestro caudal. Cuando barrio a barrio nos habéis contado vuestros problemas del día a día. Al contarnos la situación precaria en la que trabajáis los grupos culturales y deportivos. Cada vez que os habéis acercado a compartir vuestras inquietudes y dudas, cuando nos habéis mostrado vuestra opinión contestando la encuesta, o simplemente nos habéis sonreído por la calle.

Gracias a todas vuestras aportaciones en el proceso Ordizia Barrutik Hazi, hemos podido preparar las semillas del futuro, porque hacen falta propuestas para cuatro años, por supuesto, pero nos deben guiar las estrategias y objetivos a largo plazo. Es importante sembrar la semilla, que germine, para que las personas que vengan detrás rieguen y cuiden la planta para disfrutar de sus flores y frutos.

Por eso, hemos recogido en cinco grandes ejes las propuestas de nuestro programa:

**1.- CONTIGO SOMOS UNA ORDIZIA CUIDADORA Y DIGNA**

Detrás del bienestar y la dignidad de las personas siempre está el cuidado, y afrontar esos trabajos de cuidado es una responsabilidad de toda la comunidad que formamos Ordizia, compartiendo todo lo que hemos echado sobre los hombros de las mujeres. En imprescindible que en nuestras decisiones tengamos en cuenta el punto de vista de las personas que reciben mayormente esos cuidados, las niñas y niños y las personas mayores.

Pero el cuidado de las personas tiene muchas facetas y hay que incidir desde muchos ángulos. Evidentemente desde las políticas sociales, porque no queremos que nadie se quede atrás, pero debemos incidir desde el entorno más próximo de las y los ordiziarras, desde los barrios. Debemos conseguir que la propia Ordizia, nuestro pueblo, se convierta en cuidadora, y en ese sentido, nos hemos quedado muy atrás en accesibilidad.

**2.- CONTIGO SOMOS UNA ORDIZIA EDUCADORA Y SALUDABLE**

El concepto de Ciudad Educadora debe ser el hilo conductor de todas las actuaciones que emanan del Ayuntamiento, porque todo lo que hacemos educa. Por eso, no se puede convertir en una marca, o en una simple lista de eventos. Además, la educación no es solo enseñanza. El deporte y la cultura también son educadoras, y no las podemos gestionar como si no tuvieran nada que ver.

A nivel de enseñanza, debemos ser conscientes que en Ordizia formamos una sola comunidad, y que, debemos afrontar como pueblo, los problemas que tenemos como pueblo. El objetivo debe ser reforzar esa comunidad de la que todas las personas de Ordizia se sientan parte, y construir puentes que nos unan, en lugar de grietas que nos separen.

En cultura tenemos un gran reto por delante, pero tal y como hemos conseguido hacer con el deporte, queremos imaginar y establecer el recorrido para potenciar la cultura en Ordizia con los agentes locales.

**3.- CONTIGO SOMOS UNA ORDIZIA INNOVADORA Y SOSTENIBLE**

Tenemos encima el Cambio Climático y las innovaciones ya no son tales si no son sostenibles y respetuosas con el medio ambiente. Pero la clave está en innovar, en que Ordizia sea pionera, y precisamente eso es seña de su identidad. Sin tierras para la agricultura, la feria y el comercio son claves en nuestro desarrollo, se cubre el mercado con una estructura nunca antes vista, se utiliza el abastecimiento de agua para generar electricidad y alumbrar el pueblo… Las personas que nos precedieron nos enseñan claramente el camino, ¡ideas nuevas e imaginación!

Tenemos que ser innovadores y sostenibles, apostar realmente por las energías renovables, pero también por la imaginación y las nuevas tecnologías para impulsar y revivir la feria y el comercio local.

Debemos reivindicar nuestro carácter innovador, que se refleja en el polo de conocimiento y tecnología que se ha formado en torno a la escuela profesional del Goierri, y crear todas las condiciones para que las nuevas ideas de negocio que surgen se queden aquí.

En movilidad también debemos ser innovadores, sostenibles, y serios, y afrontar el problema en su totalidad. Basándonos en estudios técnicos para actuar desde múltiples frentes e incidir de manera global, porque con una sola actuación no se puede solucionar el problema.

**4.- CONTIGO SOMOS UNA ORDIZIA EUSKALDUN Y DIVERSA**

Debemos empezar a fomentar el uso del euskara desde el Ayuntamiento, porque a día de hoy es una de las herramientas más eficientes para la integración entre niñas y niños que provienen de infinidad de lugares distintos, y eso se percibe en las escuelas todos los días.

En cuanto a la diversidad, queremos romper con la visión negativa que siempre la acompaña, debido a los prejuicios basados en rumores sin fundamento, y no en datos verdaderos. La diversidad nos enriquece. Por eso, debiéramos reflexionar realmente por qué valoramos tanto estudiar en universidades lejanas, ir de Erasmus o viajar por el mundo, y luego no somos capaces de valorar de forma positiva que nuestras hijas e hijos puedan vivir esa experiencia sin moverse de casa, cuando a nosotras y nosotros nos ha costado toda una vida acumular esa riqueza del mundo en que vivimos.

Al final, la diversidad nos vuelve a llevar al euskara, porque cuantas más culturas conocemos, más apreciamos la nuestra. No porque nos sintamos superiores, sino porque nos permite aportar nuestro granito de arena que enriquece más esa diversidad que conforma nuestro mundo.

Por eso, queremos ser un pueblo de acogida euskaldun que da la bienvenida a las personas que vienen a Ordizia.

**5.- CONTIGO SOMOS UNA ORDIZIA FEMINISTA Y JUSTA**

El feminismo es una cuestión de justicia, y el objetivo es cambiar esta sociedad injusta. Es imprescindible ofrecer toda la atención a las mujeres que han sufrido la violencia machista, y medios para su empoderamiento y la reparación del dolor, pero no hay medios posibles sin recursos económicos.

Queremos potenciar la participación real de la ciudadanía, y para eso también hay que cambiar el modelo de gobernanza actual, porque el poder también hay que compartirlo y no puede estar en manos de una única persona.

En relación a la convivencia y la memoria, es primordial denunciar la situación de injusticia que viven las personas presas, buscar soluciones y el consenso entre todos los partidos, para ir dando pasos desde el reconocimiento de todo sufrimiento.



# Irisgarritasuna Accesibilidad



Gure herria zaintzailea izan dadin asko dugu egiteko, eta lehenbailehen Irisgarritasun Plana eguneratuko dugu, oinezkoa ardatz bilakatu dadin: errepidea zeharkatzeko espaloiaren maila mantentzeko, atsedenlekuak eta itzala izateko. Eraikin publikoetan igogailuak jartzeko aukerak aztertu ditugu eta proiektuak burutuko ditugu Barrena, Jakes, Oiangu eta Herri Antzokian. Auzoen artean, Oria ibaiaren ibarreko pasealekua San Joandik Mallutzeraino oinezkoentzat irisgarria bilakatzeko urratsak emango digutu, eta hortik Altamira auzoarekin lotzeko igogailuaren kokapena bizilagunekin adostuko dugu. Gipuzkoa kaletik San Inazio eta Otegienea-Majori lotuko lituzkeen igogailua, eta Garagartza atzealdetik Joaquin Ibarbia kalea eta San Jose egoitza lotuko lituzketen igogailuen aukerak aztertuko ditugu eta anbulatorioa berritzean igogailua erabiltzeko aukera Domingo Unanue plazatik Etxezarreta kalera igotzeko.

Actualizaremos el Plan de Accesibilidad, con el peatón como prioridad. Realizaremos proyectos para ascensores en edificios públicos como Barrena, Jakes, Oiangu y Herri Antzokia. Paseo del río accesible desde San Joan a Mallutz, con ascensor a Altamira, con ubicación consensuada con el vecindario. Análisis de ascensores en Gipuzkoa kalea / San Ignacio/ Puente montañita y desde trasera Garagartza a Joaquín Ibarbia / Residencia San José y posibilidad de utilizar el ascensor del ambulatorio para subir de la plaza Domingo Unanue a la calle Etxezarreta.



Casa Jakes Etxea

# Ongizatea Bienestar Social

Ordiziarrak zaintzeko Gizarte Zerbitzuak ezinbestekoak dira, baina horretarako azpiegitura duinak izan behar dira. Jakes etxe osoa Ongizatera bideratu eta igogailu batekin solairu guztiak irisgarri bilakatzeko, komunak irisgarriak egiteko eta azkeneko solairuan espazio berriak egokitzeko urratsak emango ditugu.

Los Servicios Sociales son esenciales para cuidar a las personas, pero hacen falta unas instalaciones dignas. Destinaremos toda la casa Jaques a Bienestar Social, haciendo accesibles todas las plantas con un ascensor, adaptando los aseos, y creando nuevos espacios en la última planta.

## Laburrean

- 8/80 hiria. Haurren eta Helduen iritziak erabakietan txertatu.
- Denboraren Bankua programa martxan jarri.
- Klausula sozialak Udalaren kontratu guztietan.
- Zahartzaroari eta bakardadeari arreta berezia.

# Auzoekin Ordizia gara

## Con los barrios somos Ordizia



Ordiziarrak zaintzeko, ordiziarrak bizi dien auzoetara joan behar gara, auzoak biziberritu nahi ditugulako. Urbanizazioak konpontzeko proiektuak burutu, eta lehentasunak ezarriko dituen mantenu plana egingo dugu.

Eraberritzearen helburua bizilagunen bilgune eta ekintzak burutzeko moduko espazio publikoak egokitzea izango da, lasaitasuna, eserlekuak, itzala, iturria, komun publikoak, loretegiak eta zuhaitzak, estalpea, eta haurrentzako txokoak bermatuz.

Estalitako parkeen azterketa burutuko dugu.

Auzo bizitza areagotzeko bizilagun elkarteak sustatu, kultur ekitaldiak auzoetara eraman, eta auzo merkataritza indartzeko neurriak hartuko ditugu.

Queremos revivir los barrios porque para cuidar a las personas hay que cuidar su entorno más próximo. Realizaremos los proyectos de reurbanización y un plan de mantenimiento que establezca prioridades.

El objetivo de la renovación será adecuar los espacios públicos para que se reúna la gente y se puedan organizar eventos, garantizando la tranquilidad, bancos para sentarse, sombra, agua, aseos públicos, jardines y árboles, cubrición, y zonas para niñas y niños.

Realizaremos un estudio de cubrición de parques.

Fomentaremos la creación de asociaciones de vecindario, llevaremos los actos culturales a los barrios y fortaleceremos el comercio de barrio para revitalizar la vida de barrio.

## Laburrean

- **Altamira:** proyecto de reurbanización que contemple accesibilidad del barrio, adecuación de la plaza, renovación escuelas/AA.VV. y accesibilidad del barrio al parque.
- **Buztuntza:** proyecto de reurbanización que contemple, renovación plaza Buztuntza con acceso a patio de Urdaneta, renovación Escuela, zonas peatonales seguras, zonas verdes y bancos, aseos públicos.
- **Urdaneta:** proyecto de urbanización pendiente tramo final, alumbrado en ambas aceras, locales en Bombería y readecuación zona del parque infantil.
- **San Juan:** ubicación parques infantiles, tráfico hacia Itsasondo por Karrilazpi, vuelta dirección única por Filipinak kalea y creación plazas de aparcamiento entre nº34-42.




# Zurekin ORDIZIA gara

**1. Adur Ezenarro Agirre**
41 urte. Udal arkitektoa.
**2. Maitane Alvarez Garciandia**
32 urte Komunikazioa ikasketak. Ingurumen-aisialdi ekintzen kudeatzailea.
**3. Jon Ander Caballero Zubelzu**
47 urte. GKN Legazpiko langilea, sindikalista ohia, kirolaria.
**4. Ainhoa Jimenez Goñi**
31 urte. Irakaslea eta ikastetxeko Elkarbizitza taldeko kidea.
**5. Jesus Mari Lariz Orbezabal**
66 urte. Udaleko jai-azoka eta kultura kudeatzaile ohia. Erretiratua.
**6. Itsaso Muñoz Rodriguez**
37 urte. Kazetaria.
**7. Lander Mujika Onandia**
30 urte. Ingeniari eta ikerlari teknikoa.
**8. Amaia Iztueta Mendizabal**
40 urte. Haur hezkuntzako teknikaria eta LAB Irakaskuntzako ordezkaria.
**9. Inhar Alvarez de Eulate Mujika**
35 urte eta Irizarreko langilea.
**10. Nerea Elias Mugica.**
38 urte. Feminista. Antropologoa eta kooperatibista.
**11. Santi Salceda Fernandez**
35 urte CAFeko langilea eta LABeko delegatua.
**12. Edurne Saez Soto**
59 urte, pentsioduna. ACCU elkarteko juntakidea eta Amets Bide dantza taldeko lehendakaria.
**13. Imanol Urrestarazu Garmendia**
52 urte. Trengintzako mekanikaria.
**14. Inma Cortiñas Alvarez**
63 urte. Biloreko langile ohia. Erretiratua.
**15. Jose Ignacio Aizpuru Uriarte "Zapa"**
65 urte. EMUAko langile eta garraiolari ohia. Erretiratua.
**16. Arantxa Mendizabal Zurutuza**
71 urte. Harrera langile eta dendari ohia. Erretiratua.
**17. Fran Romero Antequera**
27 urte. Ostalari eta kamioi gidaria.
**18. Mariaje Arriaga Arruabarrena**
63 urte. Etxeko langilea.
**19. "Txisku" Masid Balda**
54 urte. Elikadura ekologikoko dendaria.
**20. Ana Navarro Lopez**
61 urte. Jostuna.

# Hiri hezitzailea Ciudad educadora

Udalaren jardun osoaren zeharlerroa da guretzat, eta estrategikoa bada ezin da enplegu planetik kontratatutako behin behineko kontratuak dituzten langileekin kudeatu, horregatik heziketa teknikariaren postua sortuko dugu.

Es la línea transversal que debe unir toda actividad municipal y siendo tan estratégica no se puede gestionar mediante contrataciones temporales por el plan de empleo. Crearemos el puesto de técnico en educación.

# Hezkuntza Educación



Hezkuntza zinegotzia izango dugu, eta Hezkuntza Mahaia sortuko dugu, Ordiziako hezkuntza eragileak bilduko dituen elkarlanerako eta elkar ulertzeko foro bezala.
70. hamarkadan emergentzia plan batean eraiki zen Urdaneta eskola eraberritzeko proiektua burutuko dugu Hezkuntza Sailarekin berrikuntza eta eskolarako baliabideak adosteko.

Tendremos concejala de Educación y crearemos la Mesa de Educación, como foro que reúna a los agentes educativos de Ordizia.
Elaboraremos el proyecto de reforma del colegio Urdaneta que se creó en la década de los 70 mediante un plan de emergencia, para acordar con el Departamento de Educación los recursos necesarios.

## Laburrean

- Eskola Kultura programa jarriko dugu martxan.
- Kultur eragileen diru-laguntza sistema berrantolatu, aholkularitza eman eta ikuskizunak ekonomikoki baloratuko ditugu.
- Kultura sariak arte diziplina ezberdinetan gailentzen diren ordiziarrentzat.
- Kirolean Majoriren eraberritze prozesuarekin jarraituko dugu. 3. kantxa lortzeko. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin adostuko dugu institutuko patioa estaltzea, kirol taldeek behar dituzten baldintzak bermatuz.
- Haurren kontseilua sortuko dugu (Haurren Hiria, Francesco Tonucci).

# Kultura

Azpiegiturak eraberritu behar ditugu, baina zer nolako kultura sortu nahi dugun ere pentsatu beharra daukagu. Herriko eragileekin elkarlanean adostuko dugu bidea, baina guk gure ideiak eskaintzen dizkiegu ordiziarrei, kultur estrategia garatzeko hiru ardatzetan eraginda: formazioa, sormena, eta sozializazioa.

Debemos renovar nuestras infraestructuras, pero pensando qué tipo de cultura queremos crear. El camino lo debemos consensuar con los agentes locales, pero ofrecemos nuestras ideas a la ciudadanía, para desarrollar la estrategia cultural desde tres ejes: formación, creación y socialización.







Igogailua goiko solairu guztietara / *Ascensor a plantas superiores.*

Sarrera berria, atarirako espazio egokiarekin / *Nuevo acceso con vestíbulo apropiado.*

Areto berria kaletik sarbide zuzenarekin / *Nueva sala con acceso directo.*

Liburutegiaren berrantolaketa, sarbide irisgarria, haurren txokoa / *Reorganización biblioteca, accesible, zona infantil.*

Komun irisgarria / *Aseos accesibles.*

Harrera bulegoa / *Oficina recepción.*

Azpiko lokalak eskuratu eta Herri KAFE Antzokia sortu Domingo Unanue Plazara / *Conseguir locales inferiores y crear Herri KAFE Antzokia abierto a la plaza Domingo Unanue.*

Entsegurako espazioak / *Espacios para ensayo.*

Komunikazioa ardatza solairu guztiak lotzeko, igogailua / *Eje comunicación entre plantas. Ascensor.*

Zine-antzokiaren aretorako espazio gehigarria (taberna....) besaulkiak agertoki azpian gordetzeko mekanismoarekin aretoa libre geratzen denean erabilera gehiago emateko / *Espacio auxiliar para el cine-teatro (bar...) para cuando las butacas se puedan recoger bajo el escenario y puedan tener otros usos.*

Agertoki atzeko komunikazioa kanpora atera agertokia handitzeko eta alboetan espazioa handitu emanaldien osagarri. / *Sacar al exterior la comunicación trasera del escenario para su ampliación y ampliar espacio auxiliar lateral.*

# Azoka Feria

Eredu berriak sustatuko ditugu bertako produktuen salmentan, betiko azoka oinarri, eta D'Elikatuz birpentsatuko dugu, azokaren esperientzian oinarrituz. Plazaren modernizazioa eragileekin adostuko dugu ideia hauek proposatuz: 1.- Korronteak ekiditeko itxitura mugikorrak 2.- Zoru erradiatzailea aztertu Orkliren teknologiarekin 3.- Panel fotovoltaikoak estalkian 4.- Sabai mugikor arina neguan beroa mantentzeko 5.- Azpiegiturak erdiko zutabeetan 6.- Bi "corner" bi ertzetan, sukaldea eta mostradore/barra, erabiltzeko irekitzen diren egurrezko kaxa mugikor moduan.

Con la feria como base, fomentaremos nuevos modelos de venta del producto local, repensaremos D'Elikatuz a partir de la feria y proponemos estas ideas a los agentes implicados para modernizar la plaza: 1.- Cierres móviles contra corrientes 2.- Analizar suelo radiante con tecnología de Orkli 3.- Paneles fotovoltaicos en la cubierta 4.- Cubierta ligera móvil para mantener calor en invierno 5.- Infraestructuras en columnas centrales 6.- Dos "corner" en dos esquinas, cocina y mostrador/barra, en forma de cajas de madera móviles que se abren según uso.




# Merkataritza Comercio

Azalera handiei aurre egiteko Ordizia bere osotasunean eskaintzeko komunikazio estrategia jarriko dugu martxan, merkataritzaz haratago doan eskaintza orokorrarekin, eta online Ordiziako dendetan erosteko plataforma bakarra sustatuko dugu. Erosketak dendan edo azokan utzi, eta ondoren autoz hurbiltzeko lekuan takiletan jasotzeko zerbitzua bermatuko dugu, baita sarean egindako erosketentzat ere.

Para hacer frente a las grandes superficies pondremos en marcha una estrategia de comunicación que ofrezca Ordizia en su totalidad con una oferta global más que comercial, y promoveremos una plataforma única para la compra online en Ordizia. Crearemos el servicio para dejar la compra en tienda/feria y recogida posterior en taquillas en un punto accesible en coche, también para compras online.

# Oiangu

Oiangu Baserria berreskuratu eta proiektua indartuko dugu aterpetxe zerbitzuarekin.
Maldan Gora aretoa ekitaldiak antolatzeko aretoan bilakatu eta ondoko lokala ikastaroak/eskolak emateko egokituko dugu: natura eskola, eta azokako produktuen inguruan nekazaritza eta sukaldaritza ikastaroetarako.

Recuperaremos el caserío de Oiangu y reforzaremos el proyecto con servicio de albergue.
Habilitaremos la sala Maldan Gora como espacio de eventos culturales y los locales contiguos para cursos/talleres: natura eskola, y talleres de agricultura, cocina... en relación a la feria y los productos de temporada.



# Goierri poloa




Ekonomia soziala oinarri hartuta garapen ekonomikoa gizarte osoaren garapenarekin lotu behar dugu. Goierriko poloa indartu, eta trantsizio energetikoa aukera bezala baliatuz, bertan sortzen diren ideietatik aterako diren enpresak Ordizian geratzeko aukera eta baldintzak sortuz.

Siguiendo los principios de la economía social el desarrollo económico ha de ir ligado con el desarrollo social. Reforzaremos el polo de Goierri, para aprovechar la transición energética como oportunidad y crear las condiciones y posibilidades para que las empresas que surjan a raíz de las nuevas ideas se queden en Ordizia.

## Laburrean

- Plan Orokorraren hazkundeak mugatu, Oria ibaia berreskuratu, natura babestu.
- Lehenbailehen N1 errepideko Zarata isolatzeko neurriak eskatu Foru Aldundiari
- Bidegorri sarea osatu eta indartu, aparkalekuak hobetu, estali eta alde zaharrean lokal bat egokitu.
- Aparkalekuen azterketa orokorra herri osoan, aparkalekuak mugatu beti tokiak eskuragarri egon daitezen, aparkaldi laburreko eremuak sortu, eta baita lurpeko aparkalekua ere adituen azterlan eta datuetan oinarrituta beharrezkoa bada eta merkataritzarekiko kokapen zentralean.
- Elektrizitatea panel fotovoltaikoen bitartez sortzeko aukera guztiak erabili estalki handiak dituzten eraikin publikoetan (eskoletan, kiroldegian, plazan...)
- Energia hidroelektrikoa sortzeko aukera berreskuratzen saiatu, eta ezin bada, ordiziarrei erakutsi ondare historiko bezela.

# Euskara

Inor baztertu gabe euskara Ordiziako lehentasuneko hizkuntza izateko neurriak hartuko ditugu, Udal barneko VI. Plana egin eta aurrera eramateko baldintzak bermatuz, udal ekoizpenean euskararen erabilera hobetuz, liderrak sortuz eta ebaluaziorako tresnak sortuz.
Herriko toponimiaren zabalkundea burutuko dugu. Euskal komunikabideak lehenetsi, erabili, sustatu eta lagunduko ditugu.
Euskalgintzaren inguruko eragileak biltzen dituen Euskara Batzordea indartuko dugu, eragileekin harremanak estutzeko.
Euskara integrazio tresna eraginkor bilakatuko dugu, etorkinei euskara ikasteko erraztasunak eskainiz, herriko taldeetan euskara sustatzeko neurriak hartuz, eta oporraldietan udalekuak euskaraz, eta ikastetxe guztietako haurrentzat indartuz.

# Aniztasuna Diversidad

Ordizian bizi garen guztiak ordiziarrak gara eta horregatik, erabat baztertzen dugu jaioterria kategorizazio irizpide gisa erabiltzea, jaio garen lekua, sexua, sexu-orientazioa, sinesbidea, etnia eta abar edozein izanik ere. Aniztasuna aberastasuna da, eta elkar hobeto ezagutzeko eta harremanak sustatzeko ekintzak burutuko ditugu.

Todas las personas que vivimos en Ordizia somos ordiziarras, y por lo tanto rechazamos totalmente la utilización del lugar de nacimiento como categorización, sean los que sean nuestro lugar de nacimiento, sexo, orientación sexual, creencias etnias, o cualquier otra característica. La diversidad es riqueza, y fomentaremos actuaciones para relacionarnos y conocernos mejor.

# Harrera herria Pueblo de acogida

Eskubide guztiak pertsona guztientzat bermatuko dituen harrera herria izan nahi dugu. Harrera planak indartuko ditugu, eta urtean birritan, epe horretan Ordiziara bizitzera etorri diren guztiak ongi etorria emateko ekitaldi ofizialera gonbidatuko ditu alkateak udaletxera. Bertan, gure herria, zerbitzuak, eta herriko talde eragileak aurkeztuko dizkiegu, Ordiziak eskaintzen dituen aukeren berri izan dezaten. Herriko kirol eta kultur taldeekin hitzarmenak sustatuko ditugu integrazioan duten garrantzia aitortu ez ezik, baliabideak eskaintzeko (bekak, laguntza bereziak...).

Queremos ser un pueblo de acogida que garantiza todos los derechos para todas las personas. Reforzaremos los planes de acogida, y dos veces al año el alcalde invitará a toda persona que haya venido a vivir a Ordizia a un acto oficial de bienvenida en el Ayuntamiento. Les enseñaremos nuestro pueblo, los servicios que tenemos, pero sobre todo a nuestros agentes locales, para que conozcan las oportunidades que ofrece Ordizia. La función integradora de los grupos culturales y deportivos es indispensable, y firmaremos acuerdos para destinar los recursos necesarios (becas, ayudas especiales...).







# Feminismoa



Feminismoa justizia kontua da. Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna lehentasunezkoa da. Zentzu honetan, Ordizian, esparru ezberdinetan, politika feministak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, bizitzaren sostengua erdigunean jarriz, baliabideak handituz, Jabekuntza Eskola martxan jarriz, eta zaintza lanak aitortu eta eredu berriak sustatuz.

El feminismo es cuestión de justicia, y la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres es una prioridad. En ese sentido, nos comprometemos a aplicar políticas feministas desde distintos ámbitos de Ordizia, poniendo en el centro las vidas, aumentando los recursos, poniendo en marcha la Escuela de Empoderamiento, y reconociendo los trabajos de cuidado y promoviendo nuevos modelos.

# Gobernantza

El alcalde delegará competencias en la Junta de Gobierno Local y en el Pleno, para que el poder y las decisiones pasen de manos de una sola persona a un grupo, y se respetarán las decisiones del Pleno cuando se vaya en representación de Ordizia a distintas entidades o instituciones.

Alkateak eskumenak Tokiko Gobernu Batzordean eta Plenoan delegatuko ditu, erabakiak eta boterea pertsona bakar baten eskuetatik taldera pasa daitezen, eta Plenoaren erabakia errespetatuko dute erakunde ezberdinetan Ordizia ordezkatzen duten guztiek.

# Bizikidetza Convivencia

Bizikidetzan aurrera egiteko norberaren minak jarri behar ditugu aurrean, eta guztien aitortzatik abiatu. Alderdi guztien kontsentsua bilatuko dugu, zalapartarik gabe eta fokuetatik aldenduta lanean hasteko. Presoen eskubideen defentsa justizia kontua da, pairatzen duten egoera salatu eta konponbideak bilatzea.

Para avanzar en la convivencia hay que poner delante el dolor de cada cual, y partir desde el reconocimiento de todo sufrimiento. Buscaremos el consenso de todos los partidos, para empezar a trabajar fuera de los focos y sin estridencias. La defensa de los derechos de las personas presas es una cuestión de justicia, denunciar su situación y buscar soluciones.

# «Aukera eta ahalmen handiko herrialdea da Gipuzkoa»

Gipuzkoa bizitzeko lurralde zoragarria da. Baina, are zoragarriagoa izan daiteke. Horixe da EH Bilduren helburua, Gipuzkoa hobe eta zoragarriagoa eraikitzea. Pertsonak erdigunean jarriko dituen Gipuzkoa. Industria eta lan baldintza duinen alde egingo duena. Adinduen kalitatezko zaintzaren alde egingo duena. Tokiko merkataritzaren alde egingo duena. Aberastasunaren banaketa justuaren alde egingo duena. Benetako berdintasunaren alde egingo duena.

**Gipuzkoa hobetzearen alde lan egingo dugu!**

## Hay mucho que mejorar en Gipuzkoa

Gipuzkoa es un territorio maravilloso donde vivir, pero aún hay mucho que mejorar. Queremos una Gipuzkoa que ponga a las personas en el centro.

Una Gipuzkoa que apueste por la industria; por unas condiciones laborales dignas; por un servicio de calidad para nuestros mayores; por el comercio local; por una igualdad real... ¡Una mejor Gipuzkoa!

**Trabajaremos para que la Diputación Foral tenga en cuenta a toda la ciudadanía guipuzcoana.**



**Juan Karlos Izagirre**
Gipuzkoako foru hauteskundeetako zerrendaburua
Candidato a Diputado General de Gipuzkoa



# «Europako Parlamentua, **lanerako beste gune bat** EH Bildurentzat»

Orain Errepublikak
Ara Repúbliques
Agora Repúblicas
Ahora Repúblicas

Europako Parlamentua lanerako beste gune bat da EH Bildurentzat: Euskal Herriaren aitortza internazionalaren alde lana egiteko; konponbidearen eta preso politikoen eskubideen alde egungo aliantzak sendotzeko eta berriak sortzeko; ezkerreko kideekin batera, EH Bilduren lan, ikuspegi eta borroka feminista indartzeko; eta gure herritarren aldarrikapenak eta beharrak Europara eramateko, zubi lana eginez, betiere, esparru guztietan herritar guztien eguneroko bizitza hobetzeko alternatibak eta eredurik aurrerakoienak defendatuz Europako Parlamentuan.

## Europa, otro espacio de trabajo para EH Bildu

El Parlamento Europeo es otro espacio de trabajo para EH Bildu: para trabajar por el reconocimiento internacional de Euskal Herria; para reforzar el trabajo a favor de la resolución del conflicto y los derechos de todas y todos los presos políticos, y crear nuevas alianzas; para avanzar desde una perspectiva feminista a favor de la igualdad entre hombres y mujeres junto con las fuerzas progresistas europeas; para mejorar el día a día de las ciudadanas y los ciudadanos de Euskal Herria.